

ARAUDIA

TXIRRINDULARITZA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu Gasteizen (Araba), 2014ko maiatzaren 25ean. Hona hemen arautegia:

1. PARTE HARTZAILEAK

"EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK" infantilentzat antolatzen dira (2000 edo 2001 urtean jaiotako ikasleentzat). Gehienez kategoriako (neska eta mutiletan) 25 ikaslek parte hartuko dute lurralde historiko bakoitzeko.

2. IZEN EMATEA

"EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOETAN" parte hartzeko izen ematea, Foru Aldundi bakoitzaren bitartez egin behar da.

3.DORSALAK JASOTZEA

Dorsalak Gamarra Parkeko terrazan banatuko dira.

4. JOKO ARAUAK

- Honako baldintza hauek betetzen dituen edozein bizikletarekin parte hartu daiteke: baimenduriko garapen maximoa 6.14 m-koa (46X16koa) eta gidoiñaren zabalera 50 zentimetrokoa gehienez.
- Txirrindulariak gymcanan eta lineako proban pedal berdinak erabili beharko dute.
- Debekatuta dago platoa edo piñoia blokeatzea.
- Parte-hartzaile guztiek ikastetxeek edota txirrindularitza eskolek emandako jantziak erabiliko dituzte.
- Kasko zurrinak erabiltzera derrigortuta daude lasterkariak.
- Bizkarreko zenbakia ikusi dadin zira gardenak erabili behar dituzte lasterkariak.
- Berotzeko arropa erabiliz gero, bizkarreko zenbakia begi-bistan eraman.

Bere burua defendatzera beharturik dago lasterkari bakoitza; kirol-lehiaketa guztiei dagokien joko garbiaren aurka doan lasterkarien arteko edozein laguntza edo akordio debekaturik dago.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako bizkarreko zenbakiak eramango dituzte lasterkariak. Bizkarreko zenbaki horiek ezin dira ez ebaki, ez txikiagotu, eta lasterkariak bizkarraren ezker aldean jarrita eramango dituzte, mokorraren parean. Bizkarreko zenbakiak entregatu egin behar dira proba bukatu ostean.

5. GYMKANA PROBA

Zailtasunak saihestuz, oztoporik gabeko zirkuitu batean garatuko da proba, eta honako ariketa eta puntuaketa-irizpide hauek hartuko dira kontutan:

Ariketat batetik besterako tartea 3 metrokoa izango da.

1- LISTOI HORIZONTALAK (Paraleloak)

Listoien artetik igarotzerakoan, horiek ukitu eta mugitzen badira, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa

Bi listoien arteko tartea 12 zm koa izango da.

2- BIRLEN ARTEAN SLALOMA (Birlak)

Birlak igarotzerakoan (lerroan, zig-zagean, biribilean eta beste era batzuetan) parte-hartzaileak birlaren bat ukitzen badu, eta horren ondorioz erori edo lekuz (3 cm gutxi gorabehera) mugitzen bada, edo birla baten ordena ez bada errespetatzen, akats bakoitzeko puntu bateko (1) penalizazioa izango du. Penalizazioen batura hiru (3) puntu baino gehiagokoa bada, gaizki eginda egongo da ariketa eta hiru (3) puntuko penalizazio maximoa jasoko du.

Bira eman ez gaituz beharrekoko sei birla jarriko dira. Beraien arteko tartean zuzenean naiz inguruan 90 zmtrokoa izango da. Zig-zag eran, bigarren hilaran jarritako birlak aurrekoetatik 40 zm tarteetan izango dira

3- SUR-PLACE GUNEA

Behin “sur-place” gunean kokatu ondoren, zortzi (8”) segundoz ez bada geldirik egoten bizikleta, mugitu gabe eta gurpilari eskuekin heldu gabe, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa.


Sur-place gunea 80 zmtroko aldeak izango dituen lauki batean kokatzen da.

4- KULUNKA eta LURRETIK JASO (Jauzi-ohola botilatxoarekin

Botilatxoa hartzen saiatzerakoan, hori jausiz gero, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa.

Kulunka zeharkatzerakoan gurpil bat irtenez gero bukaerara heldu aurretik, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa.

Botilatxoa gunetik kanpo utziz gero edo uzterakoan eroriz gero, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa.



ONGI



GAIZKI

Botilatxoa jasotzeko tokia kulunkatik 1,5 ra kokatzen da, neurri berdinean jarriko da botilatxoa lagatzeko tokia.

Botilatxoa jaso eta lagatzeko borobila 12 zmtroko diametroa izango du.

5- GURPILA ASKATU

Gurpila askatu ondoren ez badu gurpila buru gainetik altxatzen edo ez badu gero gurpila ondo muntatzen, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa

Gurpila askatzeko gunea 90 zmtroko aldeak izango dituen laukiak osatuko du.



6- AURRERANZKO JAUZIA (Amaiera ohola)

Gurpilen batek ohola ukitzen badu, gaizki eginda egongo da ariketa. Hiru (3) puntuko penalizazioa.

Oholak 5 zmtroko zabalera eta luzeran metroa izango du.

HANKA LURRERA: hamabost (15) puntuko penalizazioa jasoko du parte-hartzaileak hanka lurrean jartzen duen bakoitzean

ARIKETA BAT EGITEN EZ SAIATZEA: Parte-hartzailearen bat ariketaren bat egiten saiatzeko prest ez badago, hogeita bost (25) puntuko penalizazioarekin zigortuko da jarrera hori

DENBORA: Epailak parte-hartzaileari irteera ematen dionean hasiko da denbora hartzen, eta azken proba bukatzen edo helmugako marra zeharkatzen duenean amaituko da.

Puntuetan berdinketa egonez gero kontuan hartuko da denbora

Jaso dituzten penalizazio-puntuen arabera egingo da sailkapena, eta puntu gutxien dituen parte-hartzailea izango da irabazlea. Proba egiteko denbora gutxien behar izan duenaren aldeko erabakia hartuko da berdinketa egonez gero.

6. LINEAKO PROBA

Ibilbidearen luzeera 1,5km gutxienez eta 3 km gehienez izango du. Arau orokor bezala, txirringularririk gehienez luzeera hauek egingo dituzte

Mutiletan: 17 km

Neskatan: 12 km



EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK 1.800 m ko ibilbide batean ospatuko dira:

Mutilak: 15 Km. (10 bira)

Neskak: 10.5 Km. (7 bira)

Parte-hartzaileek helmuga zeharkatzen duten ordena berean egingo da sailkapena.

Lineako frogan matxura izan ezker laguntzarik EZ da onartuko

Lasterkariak proba utzi behar du lasterketa irekitzen duen ibilgailuak lasterketa erdia burutu baino lehenago atzematzen duenean edo itzulia kentzen dionean.

Irabazleak helmugako marra zeharkatu ondoren, bai itzulia kentzen dioten parte-hartzaileentzat, bai gainontzeko lasterkarientzat lasterketa amaitutzat joko da HELMUGA igarotzen duten momentuan.

Proban zehar parte-hartzaileek ezin dute hornidurarik jaso

7. AMAIERAKO SAILKAPENA

Lineako eta Gymkanako probetan banandutako sailkapenak egingo dira. Sailkatua izateko bi frogetan parte hartu beharra dago.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



9. AZKEN OHARRA

Araudi horren barruan aurreikusirik ez dauden egoeretarako honako hauek izango dira kontutan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Txirrindularitzako Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.